


Sutondoaren epelean Kontxi Elkoro San Blas opil-egilea
Zer berri Sabin Mendizabal atxilotu eta aske utzi dute

Argipilean

SORALUZKO
HAMABOSTEKARIA
126. alea, 2006ko
urtarrilaren 27an



Garmendia kapitaina,
ikertzaile nekaezina





Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefonoa: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE


GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak

Ordutegia:
(goizez) 07:45etik 12:30etara
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara

Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022





INAKI INURRIETA

Diasporako barrixak

Egun batez, konpainia on batean, herritik kanpo bizi garen plazentziarrik baizik ez zen lekuan nengoela (soziedade batean, gure arteko sukaldari onenak prestatutakoaren zain, botila ardo batzuen inguruan), diasporaren gaia ekarri zuen solasak.

–Diasporia? Munduan zihar sakabanautako judixuak izentatzeko ez da ba izen hori?

–Bai jatorriz, baina gaur egun batera eta bestera alde eindak edozein herritxakuak izentatzeko erabiltzen dok. Euskal diasporia, porrejenplo. Zeinek eztaki gaur egun zer dan NABO, North American Basque Organization?

–Kanpua bizi garen plazentziarro'pe antolau biha genduke antzeko zeoze –egin zuen orduan sukaldariak, eskuetan entsalada koloretzu ezin ederragoa zekarrela, eta denok onartu genuen pozik haren ekarpena.

–Ointxe bertan eingo jixuau estatutuak –heldu zion bertatik abokatu ikasitakoak, entsaladiari batere duda barik ekinez.

–Estatutuak? Estatutuekin ez goiazak inora. Konstituziño oso bat –erantzun zuen gure arteko independentistenak.

–Ze konstituziño ta ze estatutu, ein deigun manifestu bat. Titulua, “Periferiatik” –sartu zen idazle abangoardista samar bat. Denerakoak gaude hemen, diasporan, zer uste duzue.

Ez genekien nondik jo. Sukaldariak eman zigun irtenbide bat:

–Hasi gaitxian hasieratik. Asmau deigun izena.

–Eztok zaila: “Kanpoko Soraluzetarrak”. Laburtuta, Kan–So.

–KanSo? Kantzauta jaixo biha juau?

–Edo “Kanpoko Plazentziarrik”, Kan–Pla.

Kanso ala Kanpla, giroa gero eta beroago. Orduan, han etorri zen sukaldaria, ertzak leuntzeko prest beti, labean erretako txitxarro batzuekin:

–Ze pentsatzen jatzue KanSoPla? Hartara, bixok arrazoi.

–Lehen nekatuta eta orain soplelian? Arreglauta gauaz.

Ordura arte isilik egondakoak ere beren ekarpenak egiten hasi ziren. “KanPlaSo” batek, “PlaSoKan” besteak... Konbinazio posible guztiak aztertu ziren, baina alferrik. Postrea hartu eta gero ere, izen–mazedonia hark hantxe jarraitzen zuen.

–Hau ezin juau erabagi barik laga. Gaur zortzi, barrero hementxe.

–Zer jarriko doskuk?

–Gula entsaladia eta oilasko bularkixak “à la Villeroy”.

Berandu batean erretirau ginan, erdiak kanso eta beste erdiak soplá. Denak ere ondo beteta, baina hurrengo astean gauzak hobetzeko esperantzan.

Telegrapak

Negu hotz. **Stop.** negu on!, **Stop.** batzuk hotzak. **Stop.** ta beste batzuk sutondon!. **Stop.** Donostiako Garmendia Kapitaina epeletan harripau dogu.**Stop.** epelak bota dittu. **Stop.** bazeukan zer kontau!. **Stop.** hori bai, gaztetako itsaso zakarra-ekin baino trankilago. **Stop.** 83 urtian bizitzan nabigatu izanak emoten daberen patxadiakin.**Stop.** bejondeizula!. **Stop.** Ramirok emon zoskun zure berri. **Stop.** eta harek bai jakin!. **Stop.** gaur Carrero ez da bizi baina espiritua bai. **Stop.** eta urduriago ibili gara Sabinen atxiloketiarekin. **Stop.** batzutan gatazkaren itsas-golpiak urrian jotzen dau. **Stop.** baina brisa onak bebai. **Stop.** Inigo Alberdiren hautagaitza adibidez. **Stop.** nora eta Euskadiko Orkestrako Zuzendaritzara!. **Stop.** bada zeozer!. **Stop.** zeozer baino gehixao Plazentziarendako.**Stop.** zorionak danon partez eta esan baietz. **Stop.** guk eskolak euskalduntziari diñogun moduan. **Stop.** neska-mutiko danak euskeraz jakin daixen. **Stop.** ez obligaziñoz, eskubidez baizik. **Stop.** eta gero erabakiko dabe Santa Agedetan kantuan urten ala ez. **Stop.** ala ez?. **Stop.** ia ba!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonia 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabillondo
Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Diseinua eta maketazioa: Maku Oruezbabal
I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esanien eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



ERREPORTAIA

Garmendia kapitainak(erdikoak) urte asko eman ditu nabigazioarekin, meteorologiarekin eta astronomiarekin lotutako gaiak aztertzen eta ikertzen



Imanol Agirre

Urtarrilaren 20an, 2 urte

Zorionak txiki!

Musu haundi bat etxekoan partetik!



Ione Garai

Urtarrilaren 20an, 18 urte

Zorionak!! eta musu haundi bat Iratzen partez!



Hasier Ugarte

Urtarrilaren 26an, 21 urte

Zorionak!! eta musu bat etxekoan partetik!



Lorea Azkona

Urtarrilaren 29an, urte 1

Zorionak!! eta urte askotarako potxola!

Gutunak

Tokiko telebistak eta euskara: eskubide kontua

Teknologia berrien eskutik datorkigu tokiko telebisten araua. Garai digitalean sartzan ari gara eta Estatuan telebista digitala legez arautu dute. Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez zehaztuko ditu EAEn banatuko diren lizentziak erabakitze irizpideak.

Dekretu zirriborroan tokiko telebistetan euskararen erabilera arautzeko irizpide nagusia ondorengoa da: Eustaten ikerketak hartuta, eremu bakoitzeko biztanle euskaldunen portzentaiaren araberrako gutxieneko kuota ezarriko zaizkie eremuko tokiko telebistei (udalek zuzenean kudeatutako telebistei %50eko gutxieneko kuota ezarriko zaie, bestelako eragileek kudeatutakoentzat ez dago gutxienerik). Bi galdera sortu zaizkigu: zergatik ez dira Eustateko datuetan ia-euskaldun moduan sailkatzen diren biztanleak gutxieneko kuota ezartzeko kontuan hartzen? Eta, zergatik ez zaigu euskaldunoi euskara hutsezko kanalik legez bermatzen?

Bi eskari eginak ditugu: euskara hutsezko telebistentzat erreserbak eta kuota ezartzeko ia-euskaldunak kontuan hartzea. Ia-euskaldunen multzoan sartzan diren biztanleak euskarazko telebistaren hartzaile potentzialak dira, euskarazko komunikabideak hartzera erakarri nahi den multzoa da. Aintzat hartzeko zenbait datu:

- Eustateko 2001eko datuen arabera, EAeko hiru hiriburuak kokatuta dauden eskualdeetan 294.294 euskaldun eta 356.504 ia-euskaldun bizi ziren urte horretan (bi urtetik gorako biztanleak). Hiru eskualde horietan EAeko biztanleen bi herenak (%67,56) kzentratzen dira.

- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordeari entzundako beste datu bat: elebidunen bi herenak (%66,3) hirietan bizi dira, EAeko errepedi sare nagusietan lerratutako 10.000 biztanletik gorako udalerrietan.

Beraz, dekretu zirriborro honen arazo populazio gune handienetan agerian gelditzen da. Hirietan dauden euskaldunen kopuruak handiak izanik, euskaldunen portzentaia txikia da (ia-euskaldunak aintzat hartuz egoera dezentente aldatuko litzateke). Euskaldun gehien bizi den eremuetan egongo dira kuota-rik txikiak (Bilbon, %16; Barakaldon, %12; Getxon, %21; Gasteizen, %15; eta Donostian, %39) eta eskaintza gehienek minimoak bakarrik beteko dituztela aurreikusitu daiteke. Euskararen erabilerraren sustapeneren ikuspegitik, herren dagoen planteamendua da beraz. Bilbon, adibidez, euskaldun eta ia-euskaldunen kopurua gehituta, ia 155.000 lagun zeuden 2001. urtean. EAeko eskualde bakarrak gainditzen du euskaldunen kopuru hori, baina hala ere Bilboko 155.000 euskaldunek ez dute beste eskualde batzuetako euskaldunek edukiko dituzten aukerak izango euskarazko tokiko telebistak izateko. Programazioaren %16 soilik izan behar da euskarazkoa. Desproporzioak nahiko agerikoa dirudi.

Irtenbidea erraza da nire uste apalean: ia-euskaldunak aintzat hartu eta euskara hutsezko telebistentzako erreserbak egin, euskaldun guztiok aukera berdinarik izan ditzagun. Eskubide kontua da.

Iker Martinez de Lagos
Topagunea Euskara Elkartearen Federazioko idazkaria

Sozialismoa gainbehera iragartzen dutenei

Evo Morales izan da berriki hautatua Bolivian presidente, eta irakurri dut Berrian badirudiela, haimaka ahaleginen ondoren, eta hamaika hanka sarturen ondoren, hala ere gaur egun ere badagoela halako joera Ameriketara ezkererari buruz. Hutsak egin izan dira, eta teoria ezkerrekoetan horiek kontuan hartuak izan behar dira zenbait teorizazio falaziazko erre-

bisatzeko, baina errebisio ganorazkoek indartu egiten dute sozialismoarendako atxikimendua, bere orokorrean hauturik hoberena baita, eta nik etorkizuneko zientzia politikoan ezkererari ikasten diot nagusitasuna, ezker errevisatu horri, generalaz arduratzen den ezker horri.

Roman Garmendia

Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonon
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Lana

Irakasleen kontratazioa Mondragon Unibertsitatean

Doktoratua edo Goi-mailako titulu bat duten pertsonak. Ondokoez arduratzen diren departamentuetarako irakasleak behar dira: Oinarrizko Zientziak, Ingeniaritza Mekanikoa, Industria Diseinuko Ingeniaritza... Telekomunikazioetako Ingeniaritza eta Informatikako Ingeniaritza. Telefonoa: 943 71 21 85.

Bekak

Europar Batasunean ikasketak egiteko 550 beka

Deitzailea: Hezkuntza, eta Zientzia Ministerioa. Espainiako edozein unibertsitateko azken urteetako ikasleak. Iraupena: Batez besteko iraupena 6 hilabetekoa da. Diru-laguntza: 440 euro hilean, bidaia-poltsaeta istripu, erantzukizun zibil eta bidaia-asistentziako aseguru. FARO proiektua. Epea: 2006-02-28. Telefonoa: 902 21 85 00.

Lehiaketak

Donostia Prima Narratiba Saria

Inoiz narratibako liburu bat argitaratu gabea izatea. Saria: 24.000,00 euro. Aurkeztuko diren lanak euskaraz idatzitako eta jatorrizkoak izango dira. Lanak DIN A4 formatuan (2.000 karaktere orrialdeko) eta gutxienez 100 orrialdeko luzerarekin aurkeztuko dira. Epea: 2006-12-20. Telefonoa: 943 48 37 50.

Iragarkiak

- **Etxea alokatzen da**, interesatuak deitu telefono honetara: 669 48 66 99.
- **Pisua salgai**: zentrikoa eta oraintsu egindakoa, 84m². 943 75 30 72.
- **Sukaldeko mahaia salgai**, neurria: 110x70, prezioa 100 euro, 649 48 35 51.
- **Lokala alokatzen da** herri erdian 30 m². 943 75 17 31.

Jaiotakoak

PEIO ARANZETA GOENAGA

Hildakoak

LUZIANA IZAGIRRE TXINDORZA

Espainiako Auzitegi Nazionalak emandako agindua dela eta, Batasunaren jardueren etetea beste bi urte luzatu dute. Erabakiaren ondorioz, bi egoitza itxi zituen Ertzantzak eta BEC-eko ekitaldia galarazi zuten. Hala ere, pasa den larunbatean hainbat eragilek eta alderdik babestuta "Eskubide zibil eta politiko-en alde"-ko ekitaldi jendetsua egin zuten Barakaldon.

Ze iruditzen zaizu Auzitegi Nazionalak Batasunaren kontra neurriak hartu izana?



Daniel Santos
17 urte, ikaslea

Alde batetik gaizki iruditzen jata, ze nahiz eta ilegalizau egin zeben, elkartzeko eskubidia dauke. Hala ta be nik uste dot, ilegalizauta zela daren ez daukela zer egin asko. Gainera, honen eragina ez da bape ona izango.



M^a Luisa Blasco
50 urte, pintorea

Ezin dot ezer argirik esan, gai delikatua dala uste dot. Elkarriketa biharrezkua da, hola konpondu biharko litzake, azkenian debekuak ez dabelako bide onik jarraitzen. Nere iritziz, ez lirake holako neurri radikalak hartu biharko.



Miren Uribe
15 urte, ikaslea

Gehixegizko neurrixak iruditzen jataz eta nik uste dot, hori ez dala bakerako bidia. Esaten dabe berba egittia dala onena, baina gero berek egoitzak ixten dittuzte. Beste alderdi danak moduan iritzixa emoteko eskubidia dauka.



Jon Mendizabal
25 urte, arotza

Beste behin be argi lagatzen dabe hartutako neurri honekin Espainiar estatuak Euskal Herrixan aurka egitten dabela. Euskal Herrixak aurrera jotzeko baldintza egokixak dittuanian zapalketia etortzen da.



Mikel Valero
46 urte, altzarigilea

Neurri honek bakebidian eragin txarrak edukiko dittuala uste dot, eta ez nago bape ados egin dabenakin. Nik uste dot ez daukala ez hanka eta ez buru, eta gainera honek aurrera egitteko ez dau bape balixo.



Maria Irizar
86 urte, etxekoandrea

Oso gaizki pentsatzen jata, holako neurrixak danian kalte haundixa ekartzen dabe. Martxa horrekin ez doiaz ondo bake-prozesua dalakuan. Hala ta be BEC-en jente asko egon zan eta hori poztekua da.

JABIER ALBERDI



KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32



kutxa

gizarte ekintza

Madriren deklaratu ondoren aske utzi dute Sabin



Urtarrilaren 19an, Sabin Mendizabal soraluzetar gaztea atxilotu zuen Ertzaintzak, 2003an Ermuko PPrengo egoitzari egindako erasoarekin zerikusia izan zezakeela eta.

Atxilotu ostean bera bizi den Elgoibarko baserrira eraman zuten mihaketa egiteko eta handik Arkauteko koartelera. Bertan izan zuten inkomunikatuta bi egunez eta ostiralgoizean Madrilera eraman zuten

Auzitegi Nazionalen deklaratu zezan. Deklaratu ostean, behin behinoko askatasunean utzi zuten, senideak 20.000 euroko bermea ordainduta. Ostiralean, iluntzean iritsi zen herrira eta lagunek ongi etorria egin zioten. Sabinekin adierazi zuenez, jasotako tratua zuzena izan zen, hala ere, senideek inkomunikatuta izan zuten bi egunetan non zegoen ere jakin ez izana salatu zuten.



LAB-EN KONTZENTRAZIOA FER-EN: urtarrilaren 11ean eskualdeko LAB-eko metaleko delegatuak FER lantokiaren aurrean konzentratu ziren FER-ek Marruekosan duen planta dela eta deslokalizazioa salatuzeko

Udal aurrekontuak martxorako

2006ko aurrekontuak otsailaren bukaeran edo martxuaren hasieran plenora eramateko asmoa du Udal gobernuak. Datozen asteetan ogasun batzordean aurkeztuko dira, eta gainontzeko alderdiei azter ditzaten kopia bana eman ostean, elegiteak egin eta plenoan bozkatuko dira.

Baltegieta 32 bizigai da jada

Joan den astean izendatu zituen Udalak bizigai Baltegieta 32ko etxebizitzak. Aurrerantzean etxek jabeek ez dute arazorik izango bertan bizi ahal izateko. Udaleko arduradun teknikoek esanetan orain arte ez zaie lizentzia tarmitatzen utzi bizigai izendatzeko baldintza guztiak betetzen ez zituelako.



Udaltzaingoa zubiaren beste aldean

Joan den astean aldatu zuten lekuz udaltzaingoa. Aurrerantzean Errabal kaleko 17. zenbakian izango da. Udaltzainak kexu dira leku txikiagoa dutelako orain. Telefonoak lehengo berbebra izaten jarraitzen du: 943 75 30 24.

ARMENDIA JATETXEA



Sukaldaritza tradizionala

Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02


FER. S.A. Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfnoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Eliza nagusiko eta Ezoziko ermitako zaharberritzeak

Eliza nagusiko zaharberritze proiektuaren aurkezpena urtarrilaren 29ko mezetan egingo da. Otsailaren 5era bitartean panel batzuen laguntzaz azalpenak emango ditu elizako obra batzordeak 7etako meza ondoren zapatuetan eta 11etako meza ondoren domekan. Ezoziko Ermitako obra batzordeak erakunde publiko pribatu zein herritarrak eskertu nahi izan ditu emandako laguntzagarik eta aurrerantzean ermitan burutuko diren lanen berri eman dute: saguzaharrei bidea oztopatu, erretaulak zaharberritu, sakristia txukundu eta zuhaitz berria landau.



“Bai eskolak euskalduntzeari” sinadura bilketa hasiko da



Eguenean aurkeztu zuten Elgoibar-ko Kultur Etxean „Bai eskolak euskalduntzeari!% kanpaina. Kanpainaren arduradunek adierazi zuten, gaur egun indarrean dauden hizkuntza politiken ondorioz, Euskal Herriko hiru ikasletik bi ez dira euskaldunduko. Horrek sortutako kezak bultzatuta, kanpaina bat jarri dute abian hezkuntzako eta euskalgintzako hainbat eragilek (Kontsei-

lua, AEK, UEU, LAB...). Alde bate-tik, hizkuntza politika berri baten beharra kaleratu nahi dute kanpainaren bidez, eta bestetik, Euskal Herri-ri hezkuntza eskumenak dituzten instituzioei eskaera egitea da sinadura bilketa erraldoi honen bidez lortu nahi dutena.

Euskal Herri osoan 110.000 sinadura batzeko asmoa adierazi dute kanpainaren arduradunek. Horieta-tik 2.600 Debabarrenean batu nahi dira eta 400 Soraluzen. Egueneko aurkezpenean eskualdeko hainbat eragiletako ordezkariak elkartu ziren, tartean Soraluzekoak ere bai. Guztiek, bakoitzak bere herrian eta bere arloan, kanpainarekin bat egin eta sinadura bilketan parte hartzeko konpromiso sendoa adierazi zuten. Datozen asteotan beraz, kanpainare-kin bat egin eta sinadurak emateko aukera izango da Soraluzen.

Aukera berria AEK euskaltegian

Zabalik da Soraluzeko AEK euskaltegian otsaileko matrikula egiteko epea. Interesatuak Maisuen Etxera jo dezakete (Frontoi kalea 1) edo telefono hauetara deitu bestela: 943751434/943201379.

Jubilatuen etxea erosi du Udalak

Luzaroan gestio lanak egiten jardun ostean, itxi du azkenik Udalak Ixaropena erosteko tratua. Madrilgo Sindikato Vertikalaren jabetza zen jubilatuen etxea, eta denboraldi batez hemengo sindikatuek erabili bazuten ere, azken urteetan jubilatuek geratu zen. Dagoeneko ordaindu dute fiantza, salneurri osoaren (140.530 euroren) %25 a: 35.132 euro. Gai-nontzekoa daotzen 6 urteetan epeka ordaindu beharko dute.

Irrati berriaren aldeko harpidetza eguna

Zapatu honetan, urtarrilak 28, Aztibegia Elkarteak Irrati Berriaren aldeko arpidetza eguna jarri du Soraluzen. “Ikuspegi nazionala eta aurrerazalea” izango duen irrati berriari laguntzeko Aztibegiekoek postua Plaza Barrian 12:30etatik 14:30etara.

Udala 6mila euro itzultzeko zorian

Gizarte -larrialdiatarako urte bukaerako dirulaguntza ez jasotzekotan izan da Udala, “hankasartze” (epez kanpo ibili dira) batetatik udal ordezkariak adierazi digutenez. Gestio batzuen ondoren 5.500 euro berreskuratuko ditu Udalak.

KM
Desing

Diseinua eta Formena

Poligono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

تذرت توتج ت ت ح ت ت ج ت ت

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

تذرت توتج ت ت ح ت ت ج ت ت



Plazentziako itsastarra



Osasunez makal egonda ere, gizalegetsu hartu gaitu etxean Iñaki Garmendiak (Soraluze 1923), azken 50 urteetan bere bizileku den Donostian. Kapitan Garmendiak, horrela deitzen diote kalean, urte asko eman ditu nabigazioarekin, astronomiarekin eta metereologiarekin zerikusia duten gaiak ikertzen; baita ere gizaldietan zehar itsasoan ibiltzeko eta kokatzeko batzuek eta besteek erabili ahal izan zituzten teknika eta tresnak intuitiboki birrasmatzen. Ogibidez Itsas Merkataritzako kapitaina izan da, eta azken urteak Pasaiako Portuko "praktiko mayor" lanetan eman ditu.

Plazentziatarra zaranik jente askok ez dau jakingo.

Plazentziatarra naiz ba! 9 urtera arte bertan bizi izan nitzan. Gure aitta Juan Garmendia "Zeleta" zan, euskaltzaiña eta euskal idazlia. Lasartearra izan arren, familixiak Plazentzian arma-tailerria jarri eta bertara jua zan bizi izatera.

Ze oriotzapen dakazu haurtzarokua?

Ni bizi nitzan labadero gañan, Lakuestan etxian. Aro bat neukan, aittak tailarrian egindakua eta haretxekin ibiltzen nitzan batetik bestera. Beste jugeterik ez zeguan orduan. Txorro-morruan, polizia eta lapurretara... hola ibiltzen giñan. Gero juten giñan ibaira eta: "ama, murgil, zeinentzako?, fulanontzako, afaltzerako", Goguan dakat Osintxuraino juaten giñala zirkua etortzen zanian. Ijituak ekartzen zeben, mono batekin.

Nun ikasi zenduan?

Maristekin. Behin baten zinera jua nitzan Benhur pelikula mutua ikustera. Maristiak jakin zeban eta as-tebeterako kastigau ninduan. Pekatu mortala zan orduan zinia. Kolegio nazionala Erregetxian zeguan Perdigoiak hartzera juaten giñan bertara, tiragomiakin botatzeko. Batzutan etortzen jataz burura halako kontuak, 80 urteko kontuak.

Ze pasau zan Plazentziatik jua bihar izateko?

Aitak osasun arazuak zekazen eta Logronora jua giñan. Logroñotikan Bilbora; han egin nitzan itsastarra. Nautika eskolan izena emotera jua eta "como se llama usted?", "Iñaki", "con ese nombre no puede entrar". Urte bete galdu neban. Plazentzian aldatu

bihar izan neban jaiotze agiria, baina han be arazoak, alkatia berena zan eta. Eta zein izan zan? Ramiro. Harek ikusi zeban zer pasatzen zan eta agiri berri bat bialdu zeban Ignacio izenakin. Eskerrak hari, bestela oindiok kalia nago. Oso laguna neban Ramiro. Egunero etortzen zan gure etxera. Zergatik egin zinan itsastar? Dirua irabazteko. Nere sentimentua orduan zan

dirua (karkar). Denbora txarrak ziran, aita espetxian sartu zeben, eta oso gaizki ibili ginan. Itsastar egin eta 14 urtez munduan zihar ibili nitzan, Ibarra konpañiakin lehenengo eta Campsakin gero. Karibera eta Golfo persikora egindakoa bidaiak gogoratzen ditut bereziki. 50 graduko tenperaturak, harek ziran beruak harek.

"Golfo Persikora egindako bidaiak gogoratzen ditut. 50 graduta...harek ziran beruak harek!"





Iñaki teleskopioarekin berak asmatu-
rik tresnak gordetzen zituen gelan

Azkenengo urtietan Pasaiako portuan ibili ziran.

Pasaiako portuko *praktiko mayor* plazia etara neban. Jubilau aurretiko 25 urtiak bertan emon nittuan. Nere lana, portuan sartu eta urte-tzen zeben itsasontzixen kapitaineri maniobrak egiten laguntzia zan. Europako portu-sarrerarik gaitzena daka Pasaiak, kurba askokin. **Zer jardun dozu ikertzen urte guzti honetan?**

Itsasuakin lotutako gauzak: nabegaziñua, astronomia, metereologia... itsasoko liburu zaharrak irakurtzen ibili naiz beti, nobelarik eta ez. Liburu horretan inspirautu, itsasuan ibiltzeko tresnak asmatu ditud; danak "Instrumentos astronomicos antiguos y curiosidades varias" liburuan jasota datoz. Hala ta be, neretako libururik inportantiena hiztegia da: "diccionario marítimo ilustrado castellano-vasco".

Zer jasotzen da hiztegiaren?

Itsasoko hiztegia irudixekin, eus-

keraz eta erderaz. 5 edo 6 urtian ibili nitzan itsasgizoneri galdezka. Bontila bat ardau eruan eta ia: "hau zer da? Laino horrek ze izen dauka?", "Hemen hola edo hala". Nere osaba Carmelita bat Carrero Blancokin egon zan ia posible izango zan liburua argitaratzia. "Un libro vasco,

"Zela ibiltzen ziran lehen itsasuan? Longitudia neur-tzeko zeozer erabili bihar zebela deduzidu dot. Hori da nere inbentua"

vasco castellano? No puede ser!" Irakurri zuenian esan zion osabari: "Está precioso. Sabe usted que es el único vasco que no se mete en política? El año que viene le doy un premio". Beste mundura bialdu zeben.

Ze asmakuntza aipatuko zenuke?

Gehixen estimatzen dotenen artian izar eta ilargi faseen identifikatzaile bat eta eguzkixan alturian kalku-

latzaile bat (paperaz eta kristalaz egindako artikulo txiki bat) dare. Itsasuan talkak galazteko eriar-te araudia zehazteko irudidun gupil bat be asmatu neban. Greziako armada-ko ofizial ohi batek kopixau zostan.

Zer topauko dogu "La navegacion en tiempos de Piteas" zure azkenengo liburuan?

Piteas, Kristo aurretiko IV. mendeko itsasgizon Massaliar (gaurko Marsella) bat zan. Ezohiko bidaia bat egin zeban iparraldeko itsasuetara. Zela ibiltzen ziran orduan? Estudio bat eginneban eta sasoi hartan itsasuan kokatu ahal izateko longitueda neurtzeko zerbait erabili behar zebela deduzidu dot, eta arreglo bat egin. Nere inbentorik inportantiena hau da. Honek ez dau bihar ez formularik eta ez ezer. Gu ibiltzen gara "seno de ..igual a seno de..", ez da ezer biahz honekin. Jartzen da aurrria eta dana markatzen dau, truko guztiak hor dare sartuta.

Liburua oindiok ez da argitaratu baina bakar batzuk irakurri dabe. Oin dala gutxi jaso dot madriletik karta bat, Philippe Cousteau fundaziñoko sekretarixo generalak idatzita, Rafael Lobetok, liburuagaittik zorientzen eta omenaldi bat egingo dostela esanez. Esan dotset ezin naizela jua. Datozen astietan elkarte ozeanografikuan, acuariumian, urrezko medallia emongo doste. Horra juango naiz. Omenaje haundixa neretako, oindiok sekretua da baiña.

Ze lotura dakazu gaur egun itsasuakin

Goizetan morriña kentzeko buelta bat emoten dot itsaso al-dian. Gehixago ez dot idatziko. Esan dotsat nere jentiarri, "kitto, amaitu dot nere lana". Nere inbento eta liburu zahar guztiak Bilboko museo maritimora emon ditud. Han jarriko dau "donacion de l capitan Ignacio Garmendia, natural de Placencia". Plaentxiar bat itsas museo baten... barre egitekua da, eh!

pilpilean

PIL-PILEAN ALDIZKARIAN IRAGARKIA JARRI NAHI DUZU?

Soraluzetar guztiengana iristeko modurik merkeena eta eragingorrena!

Deitu 943 75 13 04 edo 647 62 67 41 telefonora (Ane).
Soraluzeko Pil-pilean Herri Aldizkaria

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Zapatuan Santa Ageda bezperako ospakizunak



Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, ospakizun ugari izango dira herrian Musika Eskola, Bertso Eskola eta Abesbatzaren eskutik. Musika eskolakoak eguerdiko 12etan egingo

dute kalejira, trikitixak eta bandiak lagunduta. Herrian zenbait geldiu-ne egingo dituzte eta bertan Santa Agedako kantuak abestu, txistuak eta bandak lagundurik. Bertso eskolakoek ere eurek asmatutako bertsoak botako dituzte. Abesbatzaren eta txistulari beteranoen saioa 19:30etan hasiko da eta herriko gune desberdinetan abestuko dute.

Urtero bezala, bertso eskolakoak antolatuta, baserriz baserri aterako da lagun talde bat. Trikitilariak eta koplariak lagunduta, goizeko 8:00etan aterako dira.

Iñigo Alberdi Euskadiko Orkestrako zuzendarigai

Datozen egunetan jakingo da zeinek ordezkatzuko duen German Olazabal Euskadiko Orkestra sinfonikoko zuzendaritzan. Iñigo Alberdi Plazentziatarra da hautagaien artean postu berria betetzeko aukerarik gehien daukanetako bat. Iñigok pozik hartu du albistea, nahiz eta oraindik azken



erabakiaren zain dagoen. Zuzenbidea ikasi zuen, Musika Pedagogian goitituluduna da, eta klabezin goi irakaslea. Easo Abesbatzako Kapera Gregorianistako kide ere izan da. Gaur egun Oñatiko banketxe baten dihardu lanean eta Berria egunkarian kritika musikalak egiten ditu tarteka.



Martxoaren 4an sagardotegira

Urtero moduan, Pil-pilean Euskara Elkarteak sagardotegira irteera antolatu du aurten ere. Aurtengoa martxoaren 4an izango da, zapatuan. Orainarteko irteerak barietatuak izan badira ere, aurtengoa bazkaria izango da. Izena eman nahi duten guztiek, Pil-pileanera deituta edo Gaztelupe, Gila eta Arrano tabernetan izango dute horretarako aukera datorren astetik aurrera. Autobusean 55 lagunendako tokia izango da. (Sagardotegia zein izango den datorren astean jakinaraziko da.)

Clown ikastaroa Eibarren

Legaleon-t antzerki taldeak clown edo pailazo ikastaroa emango du otsailaren 18 eta 19an, Eibarko Kili-kolo antzerki taldearen lokalean (Amañako dorreetan). Izen emateko 687393323 (Ugaitz) zenbakira deitu daiteke. Ikastaroaren prezioa 20 eurokoa da eta izen emateko azken eguna otsailaren 10a.

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIVA

Esku eskura! Telf.: 943 75 13 45

MABE
ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

MENDATA taberna

Pizzak ● Sukaldetik zure etxera!! ● Kazuelitak
Bokadilloak ● Razioak

ostirala 08:30 - 22:30
larunbata 08:30 - 22:30
lgandea 08:30 - 22:00

Tel.: 943 75 13 87

HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

San Blasen errezeta Kontxiren eskutik



Etxeko atarian sartu eta anis usain salatua hartzean badakigu gorroto dugun bizilagunak San Blas opilak egiten diharduela. San Blas (otsailak 3) egunaren bueltan gertatu ohi da hori urtero, inguruko herrietan baino gehiago Plazentzian eta Eibarren. Kontxi Elkoro opil-egile ezagunarengana jo dugu San Blasak nola egiten dituen kontu diezagun. Anima zaitetz zeu ere.

Noiz hasi zinan San Blasak egiten?

Nik pentsatzen dot bizi guztian ibili nintzala. Amandriari eta amari ikasita. Talua, artua, morokilla eta egiten be eurekin ikasi neban. Ostian ez dot nik sukaldaritzarik ikasi. **Hamen inguruko ohituria da opilak egitia?** Eibarren eta Plazentzian asko egiten da. Beragaran ez da asko egiten eta Arrasaten da bez. Pentsaizu: Abadiñon San Blas izaten da eta berak ez dakixe egiten. Lehengusua Urkiolara juaten da eta mordua saltzen dau.

Zuk opilik saldu izan dozu?

Lehen enkargau egiten zosten. Sor Angel lehengo panaderiari 100 kilo baiño gehixago saldu izan zotsagun lehengusiñiak eta bixook, 3-4 egunian. Partikularrak bebai, oindiok be enkargatzen doste, baiña lagata nago. Neretako bakarrik egiten dot.

Zer alde dago etxeko eta pastelerixetako opilen artian?

Eskuz egindakua makinan egindakua baiño hobia beti. Txorizuakin gauza bera pasatzen da. Alde edarra dago txorizua eskuz kutxilluakin zatitu edo makiñan txikitu.

Ze edari da San Blasan lagun ona?

Ardau gozua, edo txokolatua be ez da txarra

Zer pasatzen da San Blasak andramari-xetan egiten badira?

San Blasa oin urte guztian dakazu. Gabonak aurretik bazeren eta abriilian egongo dira. Lehengusuak ur-



"Batzuk goilarakada bat ezti botatzen dotse. Beste batzuk limoi birrinak anisan partez"

te guztian saltzen dittu Urkiolan: gaztaia, ogixa, roskillak eta San Blasak.

Opilekin lotutako gauza kuriosoren bat? Batzuk kordoi bat egiten dabe, eta San Blasekin batera bedeinkatu. Lepuan jartzen da, , eta bederatzi egunian erabili ostian, erre. Ezta-rrixandako ona ei da, eztulik eta ez eukitzeko.

KONTXIREN ERREZETA

(kilo asko batera egiteko neurria)

OSAGAIK

- 8 arraultza (bi zuringo kendu)
- Kilo ta laurden iriña
- 450 gr azukarra
- Royal bat et' erdi
- Botikako anis esentzia 10-12 tanta
- Mantekilla ona 250 gr.

PAUSOZ-PAUSO

Lehenengo arraultzak batidu; gainian azukarra eta mantekillia bota eta batidu; royala bota eta ondo batidu. Iriñetan nahastu aurretik anis tantak bota. Mahai gañian iriña bota eta gero masia egin. Eskuak libre geratzen jakuzenian, pegatzen ez diranian, amasatziari laga eta rodillo batekin masia luzatu. Pikuak egin. Berotu labia 200 gradora. Sartu San Blasak eta bajatu 85 gradura. Opilak labatik etara biozunerako prest euki bihozu zurixa. Zurixa egiteko apartautako bi zuringuak montau gogor gogor egin arte. Zuringo bakoitzeko 125 gramo azukar glass. Opilak tostetzen ekitzen diranian etara labatik eta untau zurixa. Zentbat eta beruago hartu zurixa, bizkorrago gogortzen da.

Batzuk goilarakada bat eztxa botatzen dotse arraultzak batitzen dabizenian. Beste batzuk, berriz, limoi birrinak anisan partez.

Javier Alonso Zelaieta
K. Z. 20.000.434
Nora Bastida Etxeberria
K. Z. 20.000.736



HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

ARRANO
tabernia

Telefona 75 24 09

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU



EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

Atxotegi txapelkun Elgoibarko San Antonetan

San Anton txapelketako promesen arteko finalean, 22-9ko emaitzaz hartu zituzten mendean Atxotegik eta Otxotorenak Uriarte eta Aldape. Partidua urtarrilaren 20an jokatu zen, ohi denez Elgoibarko ikastolako frontoi txikian. Otxotorena nagusi izan zen atzeko koa droetan (berak jaso zuen finaleko pilotari onenaren saria) eta Atxotegik tanto bikainak egin zituen aurrekaldean bi-paretaren artea dominatzen duela erakutsiz. Finalera iristeko Ulazia eta Aldape utzi behar izan zituzten kanpoan fina-



lerdian. Jauregik, senior mailan, ez zuen finalera iristerik izan aurrekoasteen galdu ostean.

Sorak igoera fasea hasiko du



Gaur, hilak 28, ekingo dio Sorak lehenengo erregional mailara igoetzeko igoera faseari. Ezoziko futbol zelaian izango da hori arra-

tsaldeko 4etan hasita. Aurkaria Antzuola izango du. Danera 12 partiduko datozen asteetan igoera fase honetan. 2. mailan joatu du aurtengo denboraldia Soraluzeko talde nagusiak eta denboraldian nahiko aurrean ibili eta gero igoera fasea jokatzeko txartela lortu du. 7 futbol taldez osaturiko 2 grupo izango dira lehian eta talde bakoitzeko bi onenek lehenengo mailan jokatu dute datoren denboraldia.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

ATXOTEGI

Elgoibarko San Anton txapelketan

Atxotegi-Otxotorena	22
Ulazia-Iza	16
Atxotegi-Otxotorena	22
Uriarte-Aldape	9

Udaberri txapelketan

Atxotegi-Portu (Elgoibar)	18
Txapagaingo bikotea (Ordizia)	22

JAUREGI

Elgoibarren

Baez II-Loiola	22
Olaetxea-Jauregi	13

eskuko minez dago

LASKURAIN

Berasaluze IX-Laskurain	22
Galarza V-Galarza VI	16
Galarza V-Laskurain	22
Del Rey-Arizmendi	19
Galarza-Apeztegia	22
Eugi-Laskurain	18

AGENDA

FUTBOLA

Zapatuan, hilak 28, 16:00etan Soraluze-Antzuola (erreg.)

MENDI IRTEFERA

Otsailak 5, Otoio (399m), Lekeitio-Ispazter



PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Juan Mari
Arraindegia

**Eguneroko
arraina
eta konjelatuak**

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnua 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



**JATETXEA
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

- Bizkarreko mina
- Esginzeak
- Tendinitisak
- Masajeak
- Erreuma
- Etxeetara fisioterapia
- Istripu ondorengo errehabilitazioa
- Kirol osteko errehabilitazioa

ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Unai Ormazabal Iraola
Kolegiatu Zerbakia 947

Altos Hornos Industrialdea • Telleria, 6 bis - Of. 11 • BERGARA
Tel. 943 76 53 35 / 626 900 608 • ormazabalfisioterapia@yahoo.es

Iker Uzin Larrañaga

Kaletik ziohan gixajoa squash raketa bizkarrean zeukala, eta ezin izan du gure galderetatik iezen egin, ez bait zeukaten squash-eko pelotarik ez berak ez lagunak. Pelota baten bila bidalita bere laguna Iker guretzat hartu dugu, galdeketa sakona erantzuteko. Espero dugu burua ez asko kantsatzea galdeketa honekin eta squash partida irabazi izana.

Izen Abizenak.

Iker Uzin Larrañaga.

Adina.

23 urte.

Zer tara dedikatzen zara?

Ikasketak egiten nabil, Ingenieritza Elektronikoko azken urtian nago.

Eta gero zer?

Ez dakit, oindio ez nago guztiz mentalizauta amaittu egin bihar danik, baina seguruenen parora lehenengo eta gero lanera.

Jentia gehixago animatu bihar litzake Plazentzian gertazera kanpora juan biharrian"

Asko egoten al zara herrian?

Ez asko ez gutxi, neskia Eibartarra izanda ba askotan Eibarrera juaten naiz, baina sarritan lagunekin herrixan ibiltzen naiz.

Eibar ala Soraluze?

Gabez? Gabez nahixago Soraluze, girua egon ezkerro, baina ez da beti hola izaten.

Zer botatzen dozu faltan herrixan?

Batez be zinia moduko leku bat, baina ez ziniagaittik bakarrik, areto moduan baizik, eta honekin batera aparkamentuak.

Herrixan geratutakuan zer egiten dozu?

Tabernaz taberna ibili eta zurutuak eran, baina lagunekin noski!

BERTSO BEGIZ

Ikasi eta ondoren lana edo ta langabezia lagunak behintzat ondo zaintziak badu bere garrantzia herritik eibarrera hau posible ote da zera nahi dut jakitzia hara juan gabe lortu al zendun pelotarik erostia?

NEKO

Doinua: iparragirre abila dela



Iker Uzin

Zure edadiakin ez dago ezer hoberik egitterik herrixan ala?

Zer dago ba, lagunekin egotia baino hoberik?

Lagunekin egotiaz aparte beste afiziorik?

Kirola egittia, baina ahal dotenian, ze denbora eta lagunak bihar dira.

Lagunak ez dabe kirolik egiten ala?

Ez nere ordutegi berdinian.

Zela definituko zenduke zure burua?

Mutil gazte lotsati eta lagunena laguna.

Soraluzeri zeozter esateko?

Jentia gehixago animatu bihar dala bertan geratzera kanpora juan biharrian.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



Argazki zaharra



Iturria: Asier de los Ríos.

1981. urteko San Blas eguna

1981. urteko argazki honetan Soraluze familiako gaztetxoak ageri dira, San Blas opilak mezetan bedeinkatu ostean. Argazkia elizatarian dago etarata, berrizte lanak egin zituzten denboran. Ezkerretik eskumara: Nekane de los Ríos, Nerea Ibarra, Gorka Soraluze, Endika Ibarra, Asier de los Ríos eta Aitziber Soraluze.

Lehiaketa



SARIA

HIRU SARRERA
EKITALDIRAKO

Antzerkia

Otsailaren 3an, barixakua
22:30etan
Yllana taldearen "Olimpia"

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Zenbat biztanle
zituen Soraluzek
1910. urtean?

→ 3.257
→ 2.320
→ 1.987

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra
edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net

**Aurreko aleko
erantzuna...**

1343. urtean izendatu zuen Villa Soraluze Alfontso XI.a Gaztelako erregeak. Ordurarte Soraluze eta Erlaegi zenak, Placencia de las Armas izena hartu zuen.

Iturria: Ramiro Larrañagaren Monografía Historikoa.

IRABAZLEA
Iñaki Kortabarria



**Kontulan
Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarateak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPIZKOA

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarrren 22 behea, telf: 943751789



Ugaraxo

2006ko urtarrila

Gu ere Sahararen alde



Kaixo lagunok:

Hemen gaude lehen mailako ikasleak.

Laster ihauteriak direla eta, hemen doakizue jai hauetan jateko tipikoak diren **torradak**.

Hona hemen errezeta etxean egiteko. Ez ahaztu ze osagai behar diren eta zehatz mehatz jarraitu pausuak.



ON EGIN!!

Osagaiak:



ogia



esnea



arrantza



azukrea



kanela



Lehenengo, berotu esnea eta azukrea eta gehitu kanela.



Andoren, beratu ogi xerriak bertan:



Gero, pasatu irunetan.



Burri arautzatan.



Andoren, fajatu olio berotan.



Azkenik bota azukrea gainetik



txiki-inkesta

Ikusi zenduan ikastetxeko tanborradia?
Donostiakua eta Plazentziako jaixetakua ikusi dituzu inoiz?

AITOR OREGI, 10 URTE

Patixuan jo zeben, ondo. Guk be hiru urtekin joten genduan, frontoiko ikastolan. Jaixetako tanborradan urtetzen dot, tronpetia jotera.



IBAN AYORA, 10 URTE

Ikusi neban pixkat. Batzuk ez zeben joten urduri zerelako. Neri gustauko jatan jaixetan nagusixen tanborradan jotia. Ritmua eruatia da gehixen gustatzen jataka.



ENEKO OREGI, 10 URTE

Patixoko aterpian jo zeben eta gurasuak etorri ziran ikustera. Nik nahixago dot ikustia jotia baino. Plazentziako jaixetakua ez dot ikusten basarrixan egoten naiz eta.



SONIA ARRIBAS, 10URTE

Guraso asko etorri ziran ikustera, ondo jo zeben. Neri be gustatzen jata jotia. Donostiakuan askoz jente gehixago egoten da eta hobeto jantzitta juten dira.



MIRENA ALBERDI, 10 URTE

Bai txikixan egin zeben eta ondo egon zan. Gu be beheko eskolan gendenian joten genduan. Donostiakuan jente gehixagok hartzen dau parte, Plazentziakua ez dot sekula ikusi



MARTA VIDAL, 10 URTE

Batzuk konfundidu eta tanborra jo bihar zanian maki-lak joten zittuen. Donostiakua hobeto pres-tauta dago. Batzuk zalidixan juten dira eta trajiak hobeto eginda dare



TXISTEA (Kike Amonarriz)

Marisa andereñoak, autobusa hartu eta gela osoa eramán du hondartzara. Haur guztiek area ikutu orduko, arropak erantzi eta itsasoan murgildu dira, ohíu eta zalaparta batean. Guztiak Patxiku Txiki izan ezik:

-Baina Patxiku! Zer egiten duzu hor? Zoaz bainatzera lagunekin!
-Ez, ez, andereño! Nik ez dakit igeri egiten eta gainera ez daukat txizagurarik!



DANBORRADA 2006

Eskolako ikasleek San Sebastian eguneko danborrada joko dugu goiko jolas-tokian, gogo handiz ari gara lanean. Ondoren, emaitzak...

Ez uste; Plaentxi aldera ere iristen dira Sarriegiren doinuak.

DONOSTIAKO MARTXA

BAGERA...!
GU ERE BAI!
GU BETI POZEZ,
BETI ALAI

SEBASTIAN BAT BADA ZERUAN
DONOSTI BAT BAKARRA MUNDUAN
HURA DA SANTUA
TA HAU DA (H)ERRIA
HORRA ZER DEN GURE DONOSTIA

HIRUTXULOKO
GAZTELUPEKO
JOXEMARITAR ZAHAR ETA GAZTE. (Berriz)

KALERIK KALE
DANBORRA JOAZ
UMORE ONA ZABALTZEN
HOR DIHOAZ
JOXE MARI!

GAURTANDIK GERORA
PENAK ZOKORA
FESTARA!
DANTZARA!
DONOSTIARREI OIHU
EGITERA GATOK
POZALDIZ
I(H)AUTERIAK DATOZ! (Berriz)

BAGERA...!
GU ERE BAI!
GU BETI POZEZ,
BETI ALAI



ETIOPIAKO UMEZURTZEI LAGUNTZA!

Helburua: **WUKRO hiriko 500 umezurtzen elikadura bermatzea**

Laguntzeko moduak: - Pintxo-liburua erosiz (Pello Garcia Amiano)
- Bazkide eginez (250 bazkide gara dagoeneko)
652 724 805 (Iñigo)
940 40 47 40 Gipuzkoako Medicusmundi
www.jangelasolidaria.com

Aduriz, Arbelaitz, Argiñano, Arzak,
Berasategi eta Subijana sukaldariak
babestutako proiektua da.

MILA ESKER ZURE LAGUNTZAGATIK!!!

Jangela Solidaria



Animatzen bazara,
deitu Pil-pileanera.
Batutako limosna
elkartasunezko ekimen
baterako emango da.

Antolatzailea:
Ibilixan Ibilixan
Bertso Eskola

Santa Eskean baserriz baserri!

Otsailaren 4an, 20:00etan Plaza Barritik



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazoen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak

espaloia

kulturak batzen gaitu



- Musika, antzerkia, diapositibak, ikastaroak...
- Egunero menua (8 euro)
- Eguazteneko zinekluba (21:30)
- Asteburuetan: menu bereziak, enkarguak, plater konbinatuak, ogitartekoak.
- Domekero familiarendako zinea (17:30)

Maala, 2 20690 ELGETA • 943 789 085 • www.espaloia.com • espaloia@espaloia.com